

I. ERREPUBLIKA: INPERIOAREN KONKISTA (K.a. III-I)

1. Erromako topografia
2. Erromatar konstituzioa Errepublikan
3. Erromatar inperialismoa
4. Errepublikaren krisialdia (K.a. I. mendea)

II. PRINTZIPATUA: INPERIOAREN KUDEAKETA (K.o I- III)

5. Augustoren erreformak
6. Inperioaren ezarpena: Julio-Klaudiarrak eta Flaviarrak
7. Enperadorea eta etxe inperiala
8. Inperioaren probintzietako administrazioa
9. Inperioa eta hiriak
10. Gizarte inperiala
11. Erromako baliabide ekonomikoak
12. Erromako erlijioak
13. K.o. II. mendeko garapena: Antoninotar dinastía

III. ANTZINATE BERANTIARRA: INPERIOAREN DEFENTSA (K.o. III-IV)

14. Sistemaren arazoak: III. mendeko krisialdia eta Severotarrak
15. Kristautasuna, Estatuko erlijioa

0.KRONOLOGIA

- Errepublika arkaikoa (K.a.509-264): erakundeen eraketa
- Errepublika ertaina (K.a.264-133): konkista militarra eta momentu honetan eratuko da benetan *res publica*
- Errepublika berantiarra (K.a.133-27): krisi politikoa

1. ERROMAKO TOPOGRAFIA

Erroma antzinatean eta orain ere, figura handia zen, teatro edo scaena bezala ulertu behar genukeena, gu bertako figuranteak ginatekeelarik. Erroma, beti lotuta agertu da bai *septimontium* delako kontzeptuarekin, hau da, Erromako zazpi muinoak liratekeenak. Gaur egun muino hauek ez dira ikusten, bakarrik bi nabarmentzen dira, Quirinale (gaur egungo Italiako presidentearen egoitza) eta Vatikanoa liratekeenak. Garrantzitsuenak sorreran ikuspuntutik: Capitolinoa, Aventinoa eta Palatinoa dira. Aventino hasieran harresietatik kanpo eta Tiberren alboan ezartzen zen. Capitolioa jainkoen etxebizitza izango da, Palatinoa Inperioaren garaian enperadorearen etxea eta foruaren parean kokatuko litzatekeena zatekeen; eta Aventino, harresietatik kanpo, *populus* edo herria biziko den tokia.

Arkeologiaren arabera, K.a. IX. mendean sortu zen Erroma, *insola* Tiberina delako Tiber gaineko uhartetxoan eta Tiber ibaiaren alboan. Ibaetik bideratuko dute merkataritza guztia, oso garrantzitsua izango delarik. Bertan portua eratuko dute, eta Tiberren *Ostia Anticako* (Erromako portua) bidean kokatuko da populazioa.

Muinoak defentsarako izango dira, eta hasieratik, lautada moduko bat beharko dute guztiak elkartzeko eta muino horien inguruak komunean izateko, forua sortuko da, eta muino guztien zentroa izango da. **Forua** sortzeko, pantano modukoak zeuden muinoen artean eta horiek gaixotasun anitzak sortzen zituzten, malaria kasu; horren aurrean, bai eta zentro politiko-ekonomikoa sortzeko beharraren aurrean, muino guztien artean erabaki zuten pantanoak lehortu eta forua edo zentro politiko-ekonomikoa izango zena sortzea. Horrela, bailara artifiziale sortuko dute. Boterea hasieratik, aristokraziaren eskuetan geratuko da, eta *populusa* harresietatik kanpo geratuko da.

Politiko-erlijioso kutsuko beste toki bat ere eratuko dute, **zirkoa** deituko dena; hiritar guztiek bai aberats zein herriek bertan beren boterea erakuts dezaten. *Cloaca maxima* edo garbiketa lanak (pantanoak zeuden tokiak), forua eta bizitza ekonomikoa behar dutenez, harresitik kanpo kokatutako nekazari eta merkatariak beharko dituzte eta horretarako politika parte ezin hartu arren, aukera emango du elkarrekin egoteko eta ospatzeko eta horrela, elkartasun sentimendua sortu eta identitatea sortuko da, **erromatar identitatetzat** ikus genezakeena; erromatarrek interes komunak izango dituzte, zirkoan antolatuko dituztelarik honakoak.

Aristokrazia eta herriaren artean gatazkak sortzean, beti populusa Aventinora igotzen zen eta aberatsenganako zituzten betebeharrei uzten zien. Denborarekin Opia, Velia eta Caelian auzo erresidentzialak sortuko dira eta Suburu, Erromako ospe txarreko auzoa ere bertan nabarmendu ahal izango dugu.

Campus Martius, hasieran, leku zabal eta Erromako populazio armatua biltzeko tokia zen, hau da, armada biltzeko tokia eta harresitik kanpo zegoen. Armada handia zen, izan ere, zelaia handia zen. Zirkoa armada baino txikiagoa baino forua baino handiagoa zen eta beraz, tamainaren araberako boterearen sailkapena antzeman genezake. Foruan, gutxien arteko botere politikoa mantentzen zen.

Capitolio muinoan, **Iuppiter Optimus Maximusen** (eskuzabala) tenplua kokatuko da. Honako jainkoak hiria babesten eta zaintzen zuen, tenplutik. Tenplu honetan, hasi eta bukatzen ziren Erromako prozesio guztiak, tratatuak firmatzera ere **Erromako kalerik garrantzitsuena** *Via Sacra* delakoa zen eta bertatik garaipenak ospatzen ziren, eta Errepublikara garaian ospakizunetan baino ezingo ziren Via Sacra armak erabili.

Cloaca maxima airean egon zen urteetan, baina ondoren, Inperio garaian estali egin zuten. Epidemia ugariak sortzen zituen, batez ere, sukarrak.

Forua: Senatua, asanblada aristokratikoaren gunea izango da; basilika Aemilia, herria elkartzeko eta justizia izateko tokia izango da; basilika Iullia, basilika Aemiliaren parean kokatuko da; artxibategian edo *tabularium* delakoan, Erromako hiritar guztien zentsuak bertan mantenduko dira, bertan ez bazeuden ez zinen hiritarra; senatuaren

parean, Saturnoren tenplua kokatzen zen eta bertan *senatusak* erabiltzen zuen diru guztia zegoen, hasieran zaintzarik gabe egoten zen, baina IV.-V. mendetik aurrera zaintzaileak jarri zituzten, oso txikia zen kamara. Diru gutxiarekin bideratzen zuten **Konkordiari dedikatutako tenplua** senatuaren alboan zegoena, Erroma sortzeko oinarrizko adostasun bat egon zela uste zutelako eraiki zuten eta konkordia gorde egin behar zutela uste zuten eta horren eraginez, hori sakralizatu egin behar zen, horregatik tenplua. Gatazkak zeudenean konkordiari laguntza eskatzen zieten eta hitzarmen guztiak, *fides* edo konfiantzaren bidez egiten ziren. Fidagarriak ziren bakarrak erromatarrek ziren, atzerritarrek, Erromak konkistatutako herri gehienak, itun batekin erromatarren esanetara ibiltzen ziren *perfidia* edo mesfidantza deituak izango dira.


Erromako sorreran, **Vesta** Erromaren arima babesteko jainkosa izendatuko da, Erromaren jarraikortasuna babestuko duelarik; jainko maskulinoak, normalean, gerraren bidezko ekintzak babestuko dituzte. Umeak izateko, zentzu sinbolikoan, tenplu zirkularra izango du Vestak; foruaren inguruan kokatuko da honakoa, toki bazterrago batean. Orain arte aipatutako gune guztiek Via Sacra zeharkatuko dute. *Via Sacra* ekialdetik sartu, forura joan, Vestaren aurrean, senatuaren aurreragaraipena lortutako jeneral eta haren soldaduak. Capitoliara igotzen ziren Jupiterri armadak izandako garaipena emateko. Izugarritzko ospakizuna izan ohi zen.

K.a. V. mendean, eraikin publikoak areagotzen hasiko dira, batik bat, tenpluak. Tenplu horiek batez ere, aristokraziak eraikiko ditu, beren presentzia emateko eta garaipenak goraiatzeko izango direlarik, hau da, botere erakusleak dira. Portutik eragin kultural erlijiosoak etorriko dira, Magna Grezia eta Siziliatik. Zeramika greziarra ekarriko dute, bai eta beren mitologia eta erlijioa ere. Batez ere, mito bidaiariak ekarriko dituzte, Herakles bidaiaria egingo dute, merkatari greziar eta etorkinei aukera ematen zien giltza bat bazuten modu horretan erromatarrekin harremanetan jarri ahal izateko. egurrezkoak izango dira eta harria k.a. I. mendean sartuko da eta marmola Augustoren garaian.

Kapitolioko muinoa, aristokraziaren gunea izango da eta jarduera politikoaren gunea. Eremu sakratua, Erroman egiten diren gauza guztiak Jupiterren babesaren izateko eta

horren atzean Campus Martius delakoa egongo da. Campus Martiusen *auguracum* delakoa kokatuko da, magistratu eta augureak joaten ziren bertara eta erromatarrek jainkoei kontsultatzen zizkieten gauzak. Augurea harri baten gainean jarri eta txoriak aztertuz, zer egin behar ote zen erabakiak zehazteaz arduratzen zen. Erabakiak egon behar zuten gauzak aurrera eraman ahal izateko. Kapitolioko muinoan tenplua zegoen eta barnean, Jupiterren estatua erraldoia zegoen. Jupiterrekin batera, Juno eta Minerva zeuden, eta hiruak batera, *Triada Kapitolina* delakoa osatuko dute, hau da, Erromako babestzaileak izango direnak. Jupiterren tenpluaren inguruan ere tenplu txikiak kokatuko dira; horietako bat Libertas izango dugu, terminoari dagokionez, askatasuna, gutxi batzuentzat mugatuta zegoen eta pribilegioa izango da eta ez eskubidea, eman bezala kentzeko aukera zegoelarik

Jupiterren tenpluan, jainko bakoitzak bere *cella* edo gela izango zuten, izan ere, hiru jainkoak gela berebetean sartuz gero, haserretu egiten ziren. Tenpluaren irudia greziarren eraginezkoa zen eta zenbait alditan erre egin zela erregistratu ahal izan da Jupiterren tenplua. Atzerritarren ordezkariak ere bertara joaten ziren.



Senatuaren aurreko espazioa *comitium* gisara hartzen dute; bertan egurrezko gradak ezartzen ziren eta bertan hiritarrak elkartzen ziren, baina armarik gabeko hiritarrak izan ohi ziren eta lekua txikia izan ohi zen. Horrela, erabakiak lasaiago hartu zitzaizketen eta ez, Campus Martiusen armekin zeukatzen ezinegonarekin. Garrasika protestatzen zieten hiritarrek senatuari eta senatuak ateak itxi besterik ez zituen egiten nazkatzen zenean. Gainera, senatuak, guardiak zituen jendea lasaitu ahal izateko.

Foruko beste toki esanguratsuak:

Rostrak gerrako barkuen aurreko espolioak esan nahi du. Erromak I. Gerra Punikoan kartagoarren espoloi dezente hartu zituen eta erromatarren boterearen adierazle espolioak ezarri zituzten foruan, rostra izeneko multzoan. *Rostra* gora magistratuak igotzen ziren herriari hitz egiteko eta herriak ez zuen bozkatzeko eskubiderik, haserretzeko edo baiezkoa emateko aukera baino ez zuten; eta boterea daukatenak baino ezingo dute hitz egin. Erromako boterea bi modutakoa zen: *auctoritas* eta *potestas* delakoak. *Auctoritas* (gauza bat egiteko esaten denean eta *coercitorik* edo presiorik gabe egiten denean) autoritatea izango da eta *potestas* boterea (bai ala bai boterea betetzeko) litzateke.

Lapis Niger, senatuaren aurrean, Romulok Remo hil zuen tokia izango da. Senatuaren aurrean ezartzeak, senatoreei Remo bezala bukatzeko aukera eta monarkia txarra zela adierazten zieten.

Septimius Severoren arkuarenean foruaren barnean dugu.

Umbilicus urbis edo hiriko zilborrean, inframunduaren eta gaur egungo munduaren arteko tokia kokatzen zen, harriaren barnean koba bat kokatzen zelarik. Horrela, beren arbasoak foruan beraiekin zeudela adierazteko erabiltzen zen. Munduaren zentroa litzateke honako harria, horrela, Erroman munduko zentroa kokatuko delarik.

Aureoa edo lehenengo miliarioa ere foruan *umbilicus urbis* delakoaren ondoan zegoen. Brontzezko zutabea zen.

Marsyas, Picus, (begiratu etxean), esanahi ekonomikoarekin zerikusia du eta greziar oihartzuna du.

Errepublikako lehen harrizko teatroa Pompeioren teatroa izango da.

Senatua edo *curia hostilia*, eliza bihurtu zelako mantendu da gaur egunera arte. Emakumeak bultzatzen zituzten gizonezkoek senatuaren aurreko alderaino, lehenengoez, garrasiak, negarrak...egin ahal izateko protesta gisara. Pompeioren teatroa

eraiki baino lehen *comitiumeko* gradetan antzerkia egiten zuten eta tente ikusten zuten, izan ere, erromatarren ustez gizentasun gutxitasuna erakusten omen zuen I. mendera arte antzerkia eserita ikusteak. Batzuetan Saturnoren, Konkordiaren edo *pomeriumetik* edo Erromako muga sakratutik kanpo kokatzen ziren senatuaren bilera garrantzitsuenak. Artxibategia monasterioa izan delako mantendu da gaur egunera arte.

Gracoestasis delakoan, enbaxadore atzerritarrak kokatzen ziren eta jendeak begiratu egiten zituen pertsonaia exotikoak bailiran. Hasieran enbaxadoreak greziarrak baino ez ziren, baina ondoren, germaniarrek erromatarren aldetiko irainak jaso beharko dituztelarik. Eta horrela, bueltaka egoten ziren denbora guztian *comitiumean*.

Pomeriunaren barnean, magistratuen boterea ezartzen da. Muga ere markatzen du soldaduak sartu ahal izateko eta bertara ezin dira sartu armekin. Bertara armekin sartuz gero, *sacrilegium* egitea zeritzon eta zigor handiak jasotzen zituzten. Inperio garaian hiria babestu ahal izateko eta Inperioaren boterea zabaltzeko pomeriuma handituko dute.

Caster eta Poluxen tenplua eratuko dute, bikiak dira eta Troiako Helenaren anaiak dira. Greziar eragina erakartzen dute Erromara modu honetan. Sinbolo hauekin guztiekin, greziar kutsua pixkanaka sartuko da Erroman eta honako tenplu honetan ikus genezake horren adibide argia, Caster eta Poluxek, Romulo eta Remoren antza zutelako.

Lacus Curtius, hasieran foru honetan gerrak egon zirela boterea lortzeko adierazten duen oroitarria litzateke.

Janiculo, enperadoreek beren lorategiak enperadoreek beren lorategiak ezartzeko zuten gune zabala zen.

Campus Martius delakoan, *Villa Publica* delako eraikina zegoen. Bertan Erromako etsaiak gordetzen ziren Erromara sartu aurretik edo garaipena lortzen zuen jenerala ere bertan egoten zen. Hiritar erromatarrak soldaduak izango dira, zentsua idazten zuten *Villa Publica* delakoan. Txanpona Vila publica izenekoa da ere.

CAMPUS MARTIS: Errepublikan herritik kanpo armadak asmatutako prozedura.

Funtzio ezbedinak betetzen ditu:

1. Erasotzeko
2. Trantsizio espazio gisa ez herritarren eta herritarren artean. Ez herritarrak 5 urtetik behin, zentsoa egiten zenean, magistratuen aurrean aurkeztu behar ziren.
3. Gerrarekin lotutako asuntuak

ARMADA eta HIRITARTASUNArekin lotuta dago.

- Magistratuek egia esaten zutela esaten dute → Katetoria ezberdinetan sailkatzen zituzten 5 urtetatik behin, hiritarrak eta ez hiritarrak sailkatzen zituzten (Ez hiritarrek pasatu beharreko “azterketa modukoa zen ere). Jende guztiaren aurrean egiten zuten aurkezpena, baina ez ziren gehiegi, Erromatar hiriak herri txikiak zirelako ugariena. Izan ere, magistratuen lana zentsua egitea zen eta horiek hiritar edo ez hiritar izaera ematen zizuten zure bizitza modu batera edo bestera aldatzen zelarik.

Hiriko topografiarekin jarraituz, hildakoak ezta armak ezin ziren hirian sartu. Arrazoiak..

- Arrazoi higienikoak (Gaixotasunak). Horregatik hilerriak hiritik kanpo zeuden. Erromatik ateratzen diren galtzaden jartzen ziren gorpuak bi aldetan.
 - a. Arrazoi sinbolikoa: Oroitzeko. Iragana gogoratzeko eta eredu izateko.
 - b. “VIA APIA” Erromako hilerri nagusian hildakoak kokatzen ziren eta han familia garrantzitsu askoren hilobi monumentalak agertzen dira. Adb. *Corneliers Supiones*-en hilobi familiarra.
 - c. Testuetan gauza berriak errotzen dituzte iraganean oinarrituz. Beti erabili “mas maiorum” formula: antzindarien tradizioa + ohitura. Hau erromatarrek erabiltzen zuten arazo berriei konponbidea edo erantzuna emateko orduan, izan ere, Erroman gertatutako egitura guztiak antzinatean oinarritu behar ziren haien tradizio eta ohiturak azpimarratzeko behin eta berriz.

ITURRIAK

Ahozko tradizioa

→ Testu historikoa

→ Testu erlijiosoa

1. Ez dira historialarien lanak → *Annales* ordez: Urtez urteko kronikak.
2. *Sibilinoa*: Profezia guztien elkarketa. (Gauza bitxien bilduma, zerrendatzen dituelako). Adb. Fenomeno naturalak
Sibilia profezia Delfosenaren antzekoa da, baina Pumas hirian.

Arazoak egon direnean: Erlijiosoki edo politikoki tradizioak osatzen du. Honen aurrean eman beharreko erantzunak jakiteko tradizioan eta iraganean bilatzen dituzte. Eta gauza berriak guztiak iraganarekin lotua egon behar da. (iraganeko formari puntuak batu behar dira).

- Adb. *Caesar* “*dictator*” bere burua izendatzerakoan, egoera berri izan zen, tradizioak honi nola erantzun jakin ezin zuela.

+Varron, De lingua latina praktika

ERROMAREN SORRERA

1) ROMULO ETA REMO

- + **BIZKIAK** (Latindar poblazioa adierazi, asko atertzen direlako)
- + **GIZONEZKO SOLDADUAK** (armada hoplitikoa) (tokia gerra bidez irabazi)
- + **OTSOA** (Etruskoarren ikonografia)
- + **EMAKUME SABINOTARRAK** (bahituak)

Jatorri mitologikoa: Profezia bete zen, Romulo eta Remo osabaren kontra egin zuten eta honi erreinua kendu zioten. Bakar batek bakarrik boterea lortu ahal zuenez, haien artean ere borrokatu zuten. Remo hil eta Romulok boterea eskuratu zuen. Romulok Erroma hiria sortu zuen, gizonezko soldaduez osatuta. Gerraren bitartez lur gehiago lortzen joan ziren (ez koloniak ez merkataritzaren bitartez) Soilik soldadu erromatar eta gizonezkoak zeudelako hiri horretan emakumeak behar ziren. Emakumeen beharraren aurrean, Sabinotarrek (bizilagunek) festa batera gonbidatu zituzten eta han emakume guztiak bahitu zituzten. Hauek gizonen menpe geratuz. Horrela, eskubide desberdinak izan

zituzten hasieratik (horren arrazoia bahitzea izan zen). Jaiotzean (berriak) ez dira gatibuak Erromatar berriak sortu direlako, generazio hau erromatar berria izandaten da.

Emakumeak hiritartasuna eta eskubideak lortzeko prozesua

- Amatasuna
- Ezkontza

Gizonek hiritartasuna eta eskubideak lortzeko prozesua

- Gerra

*Etnikoki: Latindar, etruskoar eta sabinotar gizarteekin lotzen da

*Sozialki: Sexuaren arabera eskubide ezberdinak lortu

2) ENEAS

Troiako azken heroia: Kartagora joan “Troia berria” sortzeko. Penintsulara joan eta bere semeek, Romulo eta Remok Erroma sortu zuten, Troiatik Laziora joan zelako, bertan errege egin eta hiria fundatu zuelarik. Eneas Anquises erregea eta Afroditaren arteko semea izan zen, beraz, erdi-jainko edo heroi figura hartzen du mitologia grekolatindarrean.

2. ERROMATAR KONSTITUZIOA ERREPUBLIKAN

HIRIAREN SISTEMA POLITIKOA

Concordia / tradizioa

Hiriaren sistema politikoa

Hiria, sistema politiko zehatz baten arau eta logika onartzen duen gizonezkoen komunitatea zen. Dakigunez, emakumezkoak ez ziren hiritarrak ez baitzuten armadan parte hartu beraz ez dira kontzeptu barruan definitzen. Horrela, amankomuneko identitate bat sortzen zen eta errepresentazio eta jarrerak ulertzen dira.

Erroma hiria zabaltzen joan eta hiritar gehiago zeudenez, lur gehiago behar ziren, horregatik izan zirela konkistak esaten da. Erroma inguruan zeuden nekazal lurrei *ager romanus* deitzen zitzaien eta lur horiek bakarrik hiritarrenak ziren, izan ere, beharrezkoa

zen hiritarrei dirua edo mantentzeko baliabideak ematea¹. Gainera hiritarrak ez zirenak ez zuten lurra izateko eskubiderik. Normalean *ager romanus* hiritik gertu zegoen baina denborarekin eta konkistak ugartzen joan ziren heinean Mediterraneo osoan zabaldu zen.

Hiritarrak diruaren arabera sailkatzen ziren eta hori tribuetan islatzen ziren, tribuetaz hitz egiten dugunean ez zuen inongo erro etnikorik, ez dira sistema etnikoak eta leku huts bat baino ez zen.

Herritarrek *Comitia* izeneko asanblada osatzen dute *comitia centuriata*, adina, jaioterria eta aberastasunaren arabera sailkatzen dena. Maila aldatu daiteke (*classis*) izeneko 5 maila daudelako, aberastasunaren arabera, aberastasuna galtzen baduzu mailaz jaitsi zaitezke 5 urtetik behin egiten den erroldan. Grezian baino mugikortasun handiagoa dago, baina malgutasun mugatu batekin (ez orokorra).

Bileretan erabaki politikoak hartzen dituzte hiriko gobernurako. Hiritarrak modu zibilean elkartzean beste bilera mota ematen da. Alde batetik, militarrak direnean marteren zelaia *Campus Martis* (hiritik kanpo) elkartzen dira. Beste alde batetik, Zibilak direnean ez antolakuntza zibila, hiriko antolakuntza, hiriaren ze partetan erroldatua zaudenaren arabera egiten da, bakoitzak bere egoitzan egin behar duelako. Erroman tribuen antolaketa gauzatzen da. Sailkapenaren arabera azkenean 35 tribu agertzen dira; 4 hirian bertan eta 31 hiritik kanpo (jatorri etruskoa eta landa eremuko izaerarekin).

- 4 hiriko tribu: Erroman kokatzen dira. Badaude ere erromatar txiroak. Horiek ez daukate *ager* izateko eskubiderik eta hirira bizitzara igarotzen dira. Hauek jatorriagatik, hau da, hiritar berriak, jatorri ez erromatarrekoak dira, txiroak dira eta ez daude lotuta inongo lurretara horregatik hirian bizitzera geratzen dira. Esklabu ohiak (libertoak) diru trukean lortzen dute haien askatasuna. Hirian egoten dira hirietako tribuetan erroldatzen dira beste ondare mota bat delako. Beraz, hirian erroldatua egoteagatik ez duzu pribilegioak zertan izan behar, txiroa edo libertoa izan zaitezke, eta ondasunik gabeko edo lurra izateko eskubidea ez baduzu hirian erroldatu beharko zara.

¹ Soldaduei *quirites* bihurtzean, askotan, nekazal lursail bat ematen zitzaien hortik bizi ahal izateko

- Tribu errustikoak (landakoak dira, ingurukoak) *Ager romanus*: 31 tribu daude guztira. Hiritarra izateko ondare handia behar duzu, normalean lurrekin lortzen dena. *Ager romanus*: Erromatarren ondarea lurrean esan nahi du. Erromatarrek beti nekazari soldaduak dira, lehenengora dedikatuz. Non inskribituko ginateke? Hasieran pentsatzen genuen hirian. Baina gaur egungo prespektibarekin erantzun dugulako.

Hiritarren errolda

Hiritarrak errolda (hau da, sailkapena) bost urteetan behin egiten zen, ez soilik Erroman baizik eta lurralde osoan, eta gero, errolda hori *tabularium*-ean gordetzen zen. Zenbakien kontuak eztabaida biziak piztu ditu historialarien artean.

Errolda *pomerium*-etik kanpo egiten zen zentsoreen aurrean; zehazki *villa publica* izeneko eraikinean gauzatzen zen; hiritarrek fisikoki desfilatu behar zuten, armaturik joan behar ziren eta haien ondasunak aitortu behar zituzten, animalia izanez gero hura ere eraman behar zen.

Lehenengo mendean 20.000 lagun izango ziren, zentsoreek galderak egiten zizkieten hiritarrei euren egoera ekonomikoaren inguruan eta egia esatea derrigorrezkoa zen, izan ere, norbanakoaren gaitasun ekonomikoaz gain kalitate morala ere neurtzen zen eta, gezurretaz harrapatuz gero, horrek esan nahi zuen ez zinela fidagarria (*fides* falta). *Fides* izateak esan nahi du hiritarrek *integritas* zeukala, hau da, osotasun fisikoa zuela eta moralki ere ez zegoela usteldua.

Gladiadoreak edota zirkuan aritzen zirenak, hobeto esanda haien gorputza saldu egiten zutenek ez ziren hiritarrak eta galera fisikorik izan ezker ezin ziren hiritar bihurtu.

Behin errolda gauzatuta, hiritar guztiak *comitum*-ean biltzen ziren zeremonia erlijioso bat ospatzeko; sakrifizio bat egiten zen hiritar berriei ongi etorria emateko. Honi, *suovetaurilia* deitzen zitzaion (animalia, idi bat, txerri bat eta ahari bat izaten ziren normalean).

Hiritarrak modu zibilean elkartzean beste bilera mota ematen da. Alde batetik militarrek direnean Marteren zelaia (hiritik kanpo) elkartzen dira. Zibilak direnean ez antolakuntza zibila, hiriko antolakuntza, hiriaren ze partetan erroldatua zaudenaren arabera.

Jendea probintzietan (geroago) erroldatzean Erromako tribuetan (handiago egiten direnean) landakoetan batez ere izena eman behar dute. Erromako hirian bakarrik dagoelako bozkaren legitimazioa, Erromara ezertarako joaten ez badira. Jendearen kopurua oso handia bada ere, bozkak berdinak izango dira. Asanblada deitzen badute landa Britania edo Frantzian dutenak ez dute bere lana alde batera utziko eta beti Erromako hiritarrak izango dira erabakiko dutenak.

Hala ere, modu objetiboan bozkatzeko ez badute, Erromatar sistemaren arabera ez dute eskubidea urratzen haien erabakia izan delako Erromara ez joatea eta ez bozkatzea. Inperioaren garaian asanblada guzti hauek indarra galtzen dute, enperadoreak hartuko dituelako erabaki guztiak. Irabazteko eta erakundea babesteko, sistema zure alde jarraitzeko senatarien kopurua handitzeko formula burutzen dute, eskubiderik eta erakunderik ez kentzen. Beraz, gehiago badaude zure alde daudenak, gehiengoa lortzen duzu eta beste senatariak ezin dira kexatu ez dituzulako eskubiderik urratu (Erromatar mentalidadean). Sistema edo erakundeak ahuldu ez kendu, eskubiderik urratu gabe.

Erabakiak hiru aktore: bozkatzeko asanbladak, magistraturak eta senatua.

Bozkatzeko asanbladak

Hiru asanblada zeuden, baina garrantzitsuenak azakenerako biak ziren.

1. *Comitia curiata*: Erromako asanblada zaharrena zen *comitia calata* eta gero. Antzinako hiru tribuetako bakoitzak 10 kuria zituen eta hauek aldi berean, 10 gizon. Osotara 3.000 pertsona ziren kuriak osatzen zituztenak, eta organo hau hasieran, magistratu gorenak aukeratzen zituen baina gero bakarrik zenturien bitarteko hauteskundeak konfirmatu eta hasiera ematen ziren.

2. *Comitia centuriata*: (armadaren asanblada): goi mailako magistratuak aukeratzen zituen eta, hortaz, garrantzitsuena zen. Horrez gain, bakea edo gerra aldarrikatzeko eskumena zuten. Ez zen bozkatzeko gizonen arabera, baizik eta zenturien arabera. Oso sistema kontserbadorea zen eta lehenik zaldunen zenturiak (Aberats eta zaharrenek osatuak) bozkatzeko zuten, euren hartzen zituzten erabakiak. Marteren zelaian biltzen ziren, lehen esan bezala militar izaera zuten bilerek.

3. *Comitia Tributa*: Tribuetan hartzen diren erabakia politikoak dira. Tribuetan oinarritzen da eta behe mailako magistraturak aukeratzen zituzten. Hauek centuriarrak baino garrantzitsuagoak dira. Beraz, hiritarrak beti *comitia*-tan biltzen dira. Sistema funtzionatzeko lehen puntua asanbladak dira, bertan elkartzeko aukera duterik. Bertan, Erromako ordezkariak ziren gobernu organoak aukeratzen dira hiri gobernatu dezaten.

Magistratuak.

Magistratuak hiria gobernatzeko, administratzeko eta politikoki zuzentzeko helburuarekin hautatzen diren hiritarrak ziren. Haueskunde bidez aukeratzen ziren eta urte bateko iraupeneko kargua betetzen zuten.

Aukerketa hauteskunde bidez egiten dira, magistratuak urte batez egoten dira karguan eta asanblada kontrari badute haien kontra joango dira. Kandidatuak txuriz joaten ziren *in toga candida* deitzen zen jantziarekin. Helburua jendea foruan kandidatuak identifikatzeko da. Kanpaina egiten dute bere burua aurkeztu, normalean hauteskundeak bakarrik irabazten dute ospe moduko bat daukatenean (izena ezagutzen denean). Ezaguna edo ospe hori nondik dator?

Hiritar eta gizonetako bakarrik bozkatzeko zuten. Ospea lortzeko modu asko zuden baina balio gehien zeukana armadan kargu garrantzitsu bat² izatea zen, gerra edo

² Goi mailako ofizial gazteak balentriazko ekintzetara bidaltzen dituzte (gladeitorren adibidez) bakea sinatzeko adibidez, igual burua moztuko ziotela, eta ondo ateratzen bazen ospea lortzen zuten.

kanpaina inportanterik ez bada egon soldaduak apreziatzen dituztelako edo paper ona jokaten badute ospetsuak izango dira. Ez da modu bakarra baina bai ohikoena.

Beste modua ospea lortzeko zure familiak erromaren alde zerbait egin badu (olinpikoak antolatu, tenpluak eraikitzen...) eta orduan familiaren izena ezagutzen denez, bozkatuko zaituzte. Hauek aristokrazia izaten dira, gauza horiek egiteko dirua dutelako eta baita ere armadan general izateko aukera eta dirua dutelako. Beraz, kargu honek ezin du edozein hiritar gauzatu.

Disziplina (guztiak)

- Adoretsua (balentria). Koldarkeria, matxinatzen baziren ez zuten aukerarik hiriko hauteskundeak irabazteko.
- Agintzera (Ahal zutenak)

Adjetibo guztiekin hauteskundeak irabazteko aukera zeukaten.

Magistratu ohiak bihurtzen ziren urte bat pasatu ondoren, bizitza maila ona zeukaten egindako karguagatik eta aholkulari politikoaren kargu berria zeukaten hauek zeukatelako besteek behar zuten esperientzia. Urtez urte gehiago zirenez, asanblea berriak sortuko dituzte. Asanblada honen izena senatua izango da. Senatuan asanblada aristokratiko bat izango da, bakarrik aholkuak emango ditu, haren *potestas* ezabatus eta soilik *autitas* izango dute.

Gero asanblada ezberdinek baldintzatuko dituzte. Senatuak ez ditu legeak lege moduan egiten baizik eta aholku moduan, ezinezkoa delako botere politikoa ez dagoelako senatuaren eskuetan asanbladako eskuetan baizik. Senatarien aholku guztiak onartuko dira lege moduan, itxuran hiritarrek sortu eta onartu dituztelako. *Autoritas* terminoa agertzen da, senatuaren aholkuak gizartearengandik onartuak izateko nahia esan nahi duena. Horretarako magistratuak erabiltzen dituzte, *Potestas* magistratuen boterea modu zibil moduan agertzen da. Modu militarrean erabiltzen badute boterea ordea *Imperium* izenarekin ezagutzen da, horrela goi mailako senatariek zeukaten eta armadaren goi mailako agintea zen. Boterea senatuak bazuen ere, magistratuek zutela ematen zuten

legeak onartzen zituztelako, senatuek aholku moduan egin bazuten ere. Batera bi erakundeak funtzionatzen dutenean, *concordiaren* ideia errespetatzen da.

Magistratuak, hortaz, hautatutako kargudunak ziren eta hiru ardura mota zituzten, magistratura mota bakoitzaren berezitasunekin:

- ❖ Militarra: *imperiuma* dutelako.
- ❖ Zibila: legeak ezagutu behar dituztelako, senatuak legeak proposatzen ditu, asanbladak horiek onartzen ditu eta gero magistratuek berresten zituen. Batzuetan gerta zitekeen asanblada senatuaren proposamenarekin ados ez egotea eta orduan presioa ezartzea (sobornoen bidez, adibidez) asanbladak proposamenaren alde egiteko.
- ❖ Erretorika: hitz egiteko gaitasuna izan behar dute.

Magistraturen artean, ohikoak eta ezohikoak desberdintzen ziren. Ohiko magistratuak normaltasun garaietan agintzen zutenak ziren, eta kargu horietara *cursus honorumaren* bitartez iristen zen. Bestalde, ohikoen artean bi maila bereizten ziren: *maiores* eta *minores*.

Bata zein bestearen kasuan, magistratu guzti hauek hurrengo ezaugarri komunak zituzten:

- ❖ Izaera kolegiatua: aldi berean pertsona batek baino gehiagok, orokorrean bik, egikaritzen zuten. Horrez gain, magistratu bakoitzak bestearen erabakiak betatzeko eskubidea zuen (*intercessio*); hori bai, bakarrik zuen bestearen erabakia gelditzeko gaitasuna, inoiz ez, eraldatzeko edo ordezteko.
- ❖ Aukeraketa: magistratu *maioresak comitia centuriata* hautatzen zituen eta *minoresak comitia tributa*.
- ❖ Doakotasuna: doanik egikaritzen ziren, karguaren egikaritza suposatzen zuen ohore hutsagatik (*ad honorem*).
- ❖ Behin-behinekotasuna: karguaren egikaritza denboran mugatua zen. Orokorrean urtebetekoak ziren, zentsorearen salbuespenarekin, 18 hilabetekoa zela. Era

berean, berehalako berrautaketa ez zen posible (*iteratio*), berriz ere, zentsorearen salbuespenarekin.

- ❖ Gradualtasuna: karguek, oro har, sistema hierarkiko bat osatzen zuten.

Magistratu *maioresen* taldea

- ❖ kotsulek (consul),
- ❖ pretoreek (praetor)
- ❖ zentsoreek

Consul-ak: Magistratura gorena zen. Hitzaren etimologia ez dakigu nondik datorren baina batzuen ustez aholkua eskatetik etor daiteke. Urte hasieran otsailaren amaieran, martxoaren hasieran- hautatuak ziren, esan bezala, *comitia centuriata*ren eskutik. Kotsulek *Imperiuma* zuten, bi eratakoa izan zitekeena: *imperium domi* eta *imperium militiae*.

Lehenengoak izaera botere zibileko izaera handiagoa zuen eta hiri barruan egikaritzen zen: bai administrazioan, bai legegintzan, bai justizian, eskumen handiak zituzten -nahiz eta denborarekin, horietako zenbait galdu egin zituzten beste magistratura batzuk agertuz joan ziren heinean-; bere eginkizunen artean, zergak edo *levak* ezartzea eta eponimoak (urteari ematen zitzaion izena) erabakitzea, topatzen ditugu besteak beste. Horrez gain, bortxa eskubidea zuten: modu exekutiboan eta judizialean esku hartzeko eskubidea, baldin eta menpeko batek ez bazituen aginduak betetzen.

Magistratura gorenena konsulatua zen; ez dakigu hitza nondik datorren, baina batzuek diote aholkua eskatetik datorrela. Bigarrena, Erromatik kanpo egikaritzen zen, eta beste batzuen artean, konkistatutako lurraldeen administrazioa, armada deitzeko gaitasuna eta gerra garaian armadaren buruzagitza biltzen zituen. Laburbilduz, hirian nahiz armadan agintzen zuten.

Erromatarrentzat botererik preziatuena armadarena, hau da, gerra egitea zenez (modu horretan ospea eta aberastasunak lortzen zituztelako, ondo zetorkiena beraiei nahiz

familia-kideei boterean egonkortzeko), lehiak ekiditeko kontsul bakoitzak jarduera bakoitza 6 hilabetez egikaritzen zuen. Gainera, erromatarrek kontsentsua eta oreka bilatzen zutenez beti, bi postuak familia lagunei eman beharrean, familia aurkariei ematen zizkieten sarri.

Horiez gain, kontsulek eginkizun erlijiosoak ere betetzen zituzten: hala nola *auspiciumak*, hau da, jainkoen nahiak, interpretatzea. Edozein erabaki hartu baino lehen Jainkoei galdetu behar zitzairen eta horren interpretazioa kontsulak egiten zuen.

Orduan *augure* bihurtzen ziren. Augureak Marteren zelaira joaten ziren eta gehienetan txorien hegaldiak begiratzeko zituzten Jainkoen nahiak antzemateko. Gerretan, askotan, ez zegoen aukerarik txorien hegaldiak begiratzeko eta txitak eramaten zituzten eta goizero jaten zutenaren arabera kanpaina erabakitzen zuten.

Kontsularen azpiak *pretorea* zegoen; biak magistratu *curulak* ziren (curul, berez, artazi formako aulkia zen, plegatu egiten zena, eta magistratuak eramaten zuena bere eginkizunak gauzatzeko, beraz ez zeuden toki edo eraikin zehatz bati lotuta). Pretoreek ere *imperiuma* zuten, baina kontsulek baino neurri txikiagoan eta bereziki justiziaren ardura hartu zuten beraien gain, Erroman nahiz Erromatik kanpo. Inperioaren beharrak handitzen ziren heinean euren kopurua biderkatuz joan zen, 8 izatera arte.

Zentsorea (censor), normalean bat zena, bost urtean behin aukeratzen zen senatari zahar eta ospetsuenean artean, eta 18 hilabetez egoten zen karguan. Errolda edo zentsua egiteaz, moralitate publikoa gainbegiratzeaz eta finantza publikoen inguruko zenbait aspektuez arduratzen ziren. Censor izan ahal izateko, gainontzeko magistratura guztiak egikaritu behar ziren.

Salbuespenezko kasuetan, hau da, Erroma arriskuan zegoenean (gerra garaian orokorrean), *dictator* bat aukera zitekeen (ezohiko magistratua) botere absolutua izango zuena. *Dictatorra* kontsul batek izendatzen zuen, senatuak aginduta eta aukeratuta, eta 6 hilabete baino ez zen karguan egoten.

Magistratuak egoteko eraikin zehatzik ez zegoenez, magistratuak janzeraren bitartez desberdintzen ziren, jantzi, toga, kolore eta objektu bereziak eramaten baitzituzten. Horrez gain, sekito edo laguntzaile (*lictor*) talde bat eramaten zuten bat eramaten zuten, normalean, *fasces* direlako aizkora sinbolikoak eramaten zituztenak, magistratuen *imperiumaren* sinbolo zirenak:

Magistratura *minores* delakoak zeuden, bi zirenak: altuena *aedila* zen eta baxuena *quaestor*. Bi magistratu hauek ez zuten *imperiumik*, soilik *potestas*.

- *Edileak* galtzadak zituzten arazoak konpontzen eta administatzen saiatzen ziren
- *quaestores*ek altxor publikoa erabiltzeko aukera zuten eta diruaz arduratuko ziren; inperioa handitzean, geroz eta gehiago beharko ziren eta biderkatzen joan ziren.

Azken hauek, batzuk hirian geratu eta besteak armadan egoten ziren eta hauek ziren botina jaso eta ondoren kontatu eta banatzen zutenak. Hiri bat konkistatu ondoren, ondasunak zenbatu eta batez ere, esklaboak kontatzen zituzten, izan ere, azken hauek ematen zituzten aberastasun handienak.

Goraino iristeko pauso guztiak eman behar ziren, *quaestero*, *aedile*, *praetor* eta azkenean *kontsula* izatera pasatu behar zen. Ohore handiena azkenean *censore* bihurtzea zen. Prozesu guztia egiteari *cursus honorum* deritzogu, hau da, karrera publikoa egitea litzateke.

Plebearen tribunoak magistratura guztiak aristokratikoak zirelako ezarriko dira. Horrela plebearen interesak defendatzera iritsiko dela adierazten da, baina *sacro santictas* gisara eratzen zen eta horrela, ezin zuten plebearen tribunoa hil; bestela aristokraziak hauek hiltzera jotzen baitzuen segituan:

“El tribunado sería sacrosanto (sacrosanta potestas), lo cual significa que quien la ocupase estaría protegido de cualquier daño físico, y que tendrá el derecho de auxiliar a los plebeyos y rescatarlos del ejercicio del poder de un magistrado patricio (ius auxiliandi)”

Comitia tributak aukeratuko ditu plebearen tribunoak; magistratuek zerbait proposatzean plebearentzako ona zen ala ez erabakitzea zen haien ardura eta honakoa magistratura mota bat zen. Urtebeteko epekoa izaten zen. *Parresia* edo hitz egiteko aukera bakarra magistratuek izango dute eta horrela, plebeak bere ordezkapena izango du asanbladatan. Patrizioak plebearen tribunoa kontrolatzeko filiazioa aldatuko dute plebearen tribunoaren gorena hartu ahal izateko.

SPQR: “SENATUS POPULUSQUE ROMANUS”

Senatuen → Patrizioak. Pather:

Populus → Plebeioak (baina ez pobreak) senatarien familien artean ez daudena. Jatorriz aberatsa izan daiteke baina talde honetan egon.

Erabakiak

Hiru aktore

1. Bozkatzeko asanbladak
2. Magistratuak
3. Senatua

2. ERROMAREN KONSTITUZIOA

POLIBIO. *HIST.* 6-12-18.

- Aristokrazia-oligarkia
- Monarkia-tiranoa
- Demokrazia-demagogia (Aristoteles)

1. Zein da Polibio? Zein da Bere obra nagusia?

2. Nolakoa da Erromaren gobernua?

3. Zein da atal bakoitzaren funtzioa?

4. Zein eda Erromaren konstituzioaren eredua?

5. Non kokatzen dira hirian gobernuko atal desberdinak?

Polibiok (Greziar idazle famatuenetakoa, K.a 200. urtean jaio zen eta historia unibertsala idatzi zuen lehen idazlea da). Greziar historiarekin ikuspuntutik Erromatarren sistema politikoaren analisia egiten du. Greziarrentzako Erromaren sistemaren 3 eredu nahasketa ez zen normala, batez ere, Greziak ez zuelako inoiz lortu batasun politiko, erromatarrek asmatu zutena egin ez zutelako. Beraz, Polibiok Erromatarrak miresten ditu.

“Konstituzio mixtoa” (hau ez du polibiok esaten, horrela deitzen den termino nabarmentzen da Erromatar sistema politikoan) Erromatar sistemak hiruan biltzen dituelako. Aristokrazia (senatua), monarkia (magistratua) eta demokrazia (asanblada). Liburuaren hasieran, 43 urtetan inperioaren batuketan erromatarrek lortzeko arazoak azaltzen ditu eta Greziarrek zergatik ez zuten lortu mendeetan haien batasun politiko.

“Equilibrados y bien distribuidas”: concordia eta consensus. Eskubideak urratzen ez direla esaten du. (hasierako esaldietan). *“Pues si atendidos a la potestad.... auctoritas.... poder del pueblo”*. Herriari ez dio ematen herriari garrantzirik edo botere berezirik. Magistratuak hiritik joaten ziren eserleku batean, magistratuak bere boterea eramaten dute beti. Ahulkia ireki, beraiekin boterea eramaten dutelako. Hiru botereak dituzte.

Kontsulak: errepresentazio politiko magistratua

Bi goi mailakoak direnak:

Ezoihoak

- Dictator: Gerra garaiko ezoihoa (6 hilabete) hau sartzean beste guztiak suspentsoan geratu
- Censor: Errolda egiteko 5 urtetik bheira (18 hilabete)

Oihoak

- Consul: imperium eta auspicium
- Praetor: justizia (barru zein kanpoan)

Izaera zibila eta militarra (6 hilabetez behin) eta alderantziz consul eta pretorren artean bi zeudelako. Boterearen pilaketa ez egiteko eta batez ere, izaera militarra dutenak joaten bada edo hiltzen bada kanpainan erroma gobernurik gelditzen da, bi badaude bata bestearen pendiente daudela eta talde ezberdin asko (indar politiko desberdinak) familia politiko gehiagok aukera izateko kontsul gorena izateko.

Behe mailako magistraturak: Ez daukate imperium, ezin dute armadarik bildu ez baitute botere militarrik.

- Cuestorea: Armadako altxorra edo hiriko altxorra gordetzen dutena. Gazte aristokratik sartzean armadan lehen kargua.

POLIBIO

Bakarrik dagoen Asanblada bat dago elkarrekin ez doana, “*Los consules*”, bere desadostasuna erakusten zuen taldea Plebea da ordea. Hauek, Sistema oso egonkorra dela defendatzen dute baina bozkatzeko aukerarik ez daukatela ere. Haien direlako talde handiena hirian eta ez dutelako aukera parte hartzeko erabakietan. Hitz egin, arrotu eta azkenik matxinatzen dira.

Akordio errazena boterea banatzea, gure ikuspuntutik, erabakiak guztien artean hartzen bazituzten demokrazia izango zen erromatarrek nahi ez zutena. Erakunde paraleloak sortuko dituzte: asanblada plebearena, conquiliium. Ez diote rango berdina ematen, latinez: bilera da, baina ez dauka zentzu politikorik. Erabaki politikorik ez dute hartuko eta plebearen iritzia bakarrik eskainiko dute. Erabaki militarretan bai hartuko dute parte, baina funtzio nagusia magistratuak sortzea izango da, plebearena izango dena, paraleloak sortzeko.

Magistratu berezia: Tribunoa. Botere berezia, (Ez potestas ez opidum) gauza arriskutsua ematen diote, “veto eskubidea”. Legearen arabera zein lege onartzen diren tribunoek izango dute aukera ezezkoa emateko. Tribunoak errepublika osoaren heriotza tasa altua izan zen eta gogorra izan zen, non momentu batean plebearen heraitzea delitu erlijioso bihurtu zuten (delitu handiena) *sacrosantitas* izaera eman zien, ukiezina, *Res publica*-k erabakia. Hori ez zen inpedimenturik izan. Urte bat pasata kargua bukatzen denez, hauek senatariak bezala bihurtuko dira oso erabakigarria izango dena: senatu plebeioa. Gauzak aldatzen dira aholkulari moduan asanbladak onartzen dituztenak

plebearen aldeko legeak aholkutzeko aukera sartzen da. Hau da, oposizioa integratzeko prozesua izan zen.

(Errepublika berantiarrean senatari batzuk jatorriz aristokratak direnak momentu batean interes politikoengatik aintzindari plebeioa daukatela esaten dute, interes politikoak aldatzen diren heinean).

Senatua kanpoko politikaz arduratzen da (*crear tribunos* ofiziales: militarri tribunoak) eta *questores* (gaztea). Magistratuek ez dute dirurik hori senatuek erabakitzen dute. Erbesteratzea heriotzarekin konparatzen dute (Antzinate klasikoan bezala).

“*El pueblo distribuye los cargos entre los que lo merecen*”. Tuzidides-en hitzaldia, Perikles goraiatzen demokrazia (sari ederrena hiritar batentzat). Greziarra dela gauza horiengatik nabaritzen da. Aberriaren alde hil egitea hiritar baten sari ederrena (Grezian). (Erroman) lider egitea, edo bizitza politikoan parte hartzea. (Adb. erromatarrek gerra edo bakea).

APUNTEETATIK ATERATAKOA

Errepublika berantiarri buruz, Zizeronek idazten digu gehienbat eta Polibiok ordea, Errepublika ertainari buruz. Hau, greziarra zen eta Zizeron erromatarra. Polibio Megalopolis hiriko *strategos* edo jenerala izan zen, beraz goi-mailako pertsonaia zen bere hirian. Megalopolis Peloponeson zegoen eta Akeotarren ligan egongo litzateke, Polibio Erroman bahitu edo garantia bezala hartu zuten, akeotarren ligaren leialtasuna bermatu ahal izateko. Goi mailako kidea zenez, erromatar familia batek, hau da, Corneli Scipionisek hartu zuen idazlea, ikasketak emateko bere seme-alabei, honakoen tutorea izango delarik³.

Bertan mundu helenistikoaren historia delako liburua idazten hasi zen eta zergatik erromatarrek berrogeita hamar urteetan konkistatu zuten mundua adierazi eta zergatik greziarrek ez zuten halakoa gauzatu aztertzen zuen Greziarretzat, greziarrez idatziko du,

³Tutore edo irakasleak Erroman askotan esklaboak edo libertoak izaten ziren.

Erromako inperioa nolakoa den adierazteko idatziko duelarik, testu honetan, greziarrek nola justifikatzen duten erromatarrek politika egiteko zuten modua adierazten da.

Polibiok erromatarrak miretsi egiten ditu eta Mediterraneoan onenak izan direla esaten zuen hemendik aterako da Historia Garaikidean inperialismoaren ideia jorratuko dutenak, berdinen arteko lehia batean Mediterraneoan.

Idealizazio puntu bat izango du beti, greziarrentzat eta miresmenetik azalduta dagoelako, liburu guztiak ez dira kontserbatzen, bakarrik inperio bizantziarrak bere nahientzat erabilgarrienak zirenak adierazi ziren, gerrari konstituzio politikoari eta diplomaziari zegokiena baino ez zieten kopiatu.

Ikuspegi zatitua dugu, kontserbatu denaren artean, VI. liburua da ondoen kontserbatu dena eta Erromako konstituzio politikoari eskainia dago eta honakoa, *politeia* izango da. Greziarrentzat termino hau, sistema politikoa definitzea garrantzitsua litzateke eta horregatik Polibiok lehenengo sistema politikoa adierazten du. Polibiok, greziarren *politeia*-aren ikuspuntutik, erromatar egitura, ez aristokrazia, ez demokrazia eta ez monarkia ez direla aurkitzen esaten du. Beraz, senatuak gobernu aristokratikoa dela esaten du, demokraziaz hitz egiteko asanbladak adieraziko ditu eta magistraturek monarkiari buruz hitz egiteko aukera emango diote. Teoria honen arabera, greziarren konstituzio tradizioaletik gora egin zuten erromatarrek eta horregatik ezin zutela aurrera egin greziarrek ez bezala adierazten du Polibiok. Konstituzio mitxo hitzak ez zituen sekula erabili eta horren ordez hau esan zuen: senatuaren kompetentziak azaltzen ditu konstituzio mistoaren arabera, honen arabera, erromatarrek ez zuten beren burua horrela ikusten, hau da, *res publica* gisara ikusten, konstituzio mistoarekin, sistemak aurrera egiteko oreka hartu dute.

Konstituzio mistoa eta armadaren boterea (*manpower*) delakoarekin, Polibiorentzat, erromatarrak, Mediterraneoan irabazi zuten eta greziarrek hori egin behar zutela esan zuen baina greziarren artean zeuden liskarregatik ezin zuten aurrera egin.

Senatuaren boterearen iturria, Polibioentzat, altxor publikoa kontrolatzen duelako adierazten du, senatuaren boterea, diruaren kudeaketa konstituzio mistoan oinarrituta dagoelarik.

3. ERROMATAR IMPERIALISMOA

Inperialismoaren ideologia

Imperator, berez ez da betirako titulua, urtean 6 hilabetetan izaten dutelako magistratuek. Imperator, inperioaren garaian emango zaien titulua izan da baina ez da bere posizioa definitzen duena, hau da, guk gaur egun erromatar titulaturaren aldi guztietan hartuta dago baina imperator⁴ hartzen zutenean erabiltzen zituzten hitzak; princeps edo Augustus⁵.

Ez zuten inperialismoa izendatzeko izenik. Gaur egungo historiografia erabiltzen du gaur egungo inperioak izendatzeko. (Baina hori magistraturaren izena zen). Eztabaida, inperialistak edo ez? Bi bandotan lerrokatzen dira.

Gauza batzuk testuetan adierazten dituzte. Arginetakoa, Ciceron⁶-en esaldia: “Sizila lehen probintzia izanez, erakutsi digu zein ederra den atzerriko lurraldea menderatzea”.
→ Honekin inperialismoaren ideologia ikus daiteke.

Konkista garaia

1. Konkisten kronologia:

⁴ Bakarrik gera garaian daudenean izendatzen ditu magistratuak edo enperadorea

⁵ Erromatar inperioan dagoen edozein enperadorea da ez bakarrik lehenengoa

⁶ I. mendearen oso pertsonaia famatua, abokatua izan zen, akusazioak eta defentsak eginez.

- Pirro
- Kartago
- Hispania
- Mazedonia
- Numidia

2. Tresnak:

- *Amicitia*
- Hitzarmenak
- *Diditio*

3. Hausnarketa intelektualak: Zizeron: Legitimazioa. (atzerrikoentzat eta erromatarrentzat). *Humanitas*. (zintzotasuna)

- Greziar ikuspuntua: Krudeltasuna
- Salustio: ustelkeria, diru-nahia

4. Gaur egungo historiografia

- C. Championen teoria. Preso gatibuak nola tratatzen dituenaren arabera, AEB eta erromatar inperioaren arteko konparaketaren arabera gauzatzen den teoria da. Inperio luzeena, Erromatar Inperioa izan delako.

1. ERREPUBLIKA

III-II: Inperio garaia. Nukleo garrantzitsuena hemen ematen da. Behin Italiako konkista amaitu eta gero ematen da.

ITALIAKO KONKISTA

Hegoaldean: Magna Grezia

1. Pirro (Grezia). K.a 280-275

Erromatar inperialismoa Italiako lehen herriaren konkistarekin hasi zen, hau Epiro izanik eta Pirro erregearen kontra egin ondoren. Izan ere, leku hau Alejandro Magnoren sibilismoarekin lotzen da, izan ere, Pirrok honen ondorengoa izateko



nahia zeukan haren ondorengo moduan adieraziz bere burua. Hala ere, lehen porrotak jasan zituen Erromak falange hoplitikoa (Ekialdekoa) borroka teknika eta antolakuntza armatu hobea zutelako. Lehen porrotaren ostean, ekialdeko teknika hartuz eta Alejandro Handiaren oinordekoak ere izendatu zuten bere burua. Soldaduen erreklutamendua egin zuten.

2. Alejandroren oinordetza Mendebaldean. ideologikoki Alejandroren oinordekoa justifikatzen du. Alejandro Handiaren ondorengoa. Falange mazedoniarren falange hoplitikoaren garapen bat, Alejandroren oinordekoen boterearen mantentzea nahi da. Ideologikoki Alejandroren oinordetzan justifikatuko da, bere oinordea mediterraneoan hurrengo mendeetan. Guda: Alejandroren oinordekoak V.S Erromatar agintari berriak. Erromatarrek mendebalderantzako bidea gelditzen dituzte. Irabazi ostean modu defentsiboan ez soilik modu erasotzailean konkista egiteko gaitasuna dutela sinesten dute.

Erromatarrek irabazten dute falange mazedoniarren kontra. Pirro irabazi zuten, falange edo gizonen erdia galduz. Erromatarrek talde txikiagotean banatzen ziren. Malgutasun eta mugikortasun handiagoarekin. **Magna Greziaren konkista: K.a 273-272.**

2. KARTAGOREN KONTRAKO GERRA: K.A 284-146

- K.a 264-241
- **k.a 218- 201.** Hiru kanpainetan garrantzitsuenak.
- k.a 148- 146

Bigarren gerrate punikoan Kartagotarrak garaitzen dituzte, Pirroren garaipenarekin ekialdeko bidea ireki dute eta Kartagorekin Hegoaldeko bidea, Afrikaruntz. Gerra honekin ere, base militarrek Hispanian zeudelako, Mendebalderako bidea zabalik ikusi zuten. Hispaniako kasuan, lege ideologikoa erabili zuten ekialdean erabilia zeukatena: Alejandroren oinordetzaren ideia. Errepublikaren garaian esaten zen Alejandroren idazkiak agertu zirela esan zuen ondorengo kanpainak izendatuz eta horiek

mendebaldean zeudela esanez. Fantasia baten oinarrian, erromatarrek mendebaldeko konkistak justifikatzen zituen. Kartago borobila zen.

Kartago, Afrikako ipar-mendebaldean zegoen potentzia maritimoa zen eta beraien kontrako gerrak eta gatazkak gerrate puniko moduan ezagutuak izango dira. Gerra hauetatik aurrera erromatarrek garrantzia handia emango diote arlo ideologikoari eta beraien joera beti izango da etsaiak modu zehatz batean karakteritzea, errazago suntsitzeko. Kartagotarrak perfidiarekin lotuko dituzte, hau da fidagarritasun ezarekin eta ondorioz, fidagarriak ez direnez, ezin izango dira inoiz erromatarrek izan eta akabatuak izan behar dira.

Alde militarrean, Pirroren kontra borrokatzearen ondorioz ikasitako aplikatuko dute eta legioa perfektionatuko dute; horrez gain, itsas armada antolatuko dute.

Kartagok Europako hego-mendebaldean Siziliako mendebaldea, Sardinia, Korsika eta Hispania menperatzen zituen. Beraz erromatarrei asko interesatzen zitzairen gainditzea.

- **Lehenengo Gerra Punikoa (K.a.264-241)**

- Siziliako Gerra

- Lehenengo Gerrate Punikoaren baitan garrantzitsuena Siziliako gerra izan zen, gerra honen izaera nagusiki ekonomikoa izan zen, helburua lurraldea eta inguruko merkataritza kontrolatzea baitzen. Sizilia oso aberatsa izan da beti nekazaritza eta merkataritzari begira. Kontuan izan behar dugu garai horretan Erromako armada handitu egin zela eta horrek bi ondorio ekarri zituen; alde batetik, elikatu beharreko soldaduak ugaritu egin ziren eta soldaduen kopurua handitzean, lurrak lantzen zituztenen kopurua murriztu egin zela.

- Beraz, elikagaiak eta batik bat, garia beste nonbaitetik lortu behar zuten, hainbat bataila ostean Erromak Kartago gainditu zituen, eta gerra itun baten bidez

bukatu zen. Itunen honen arabera, Kartagotarrek isun batzuk onartzen zituzten baina isunek itota eta berriro ere indartzeko asmoz Hispaniara alde egin zuten.

- **Bigarren Gerra Punikoa (K.a.218-201):** Gerra hau famatuena da eta Anibalen aurkako gerra bezala ezaguna da baina gerrari buruz iritsi zaigun informazioa mitoz eta legendaz josia dago eta hori dela, zuhurtzia handiz kontatu behar da.

Hasiera batean, kartagotarrek, Anibalek zuzenduta, garaipen ugari izan zituzten eta Erromako ateetaraino iristea lortu zuten. Baina Pirrok egin zuen moduan, Erroma guztiz akabatu beharrean *eusebia* (klementzia) erakutsi zuten eta sekulako akatsa izan zen. Izan ere, Erromak posible izan zuen berriro ere altxatzeko eta hobetzeko eta etorkizunean garaitzeko.

Erromak, Anibalen aurka galdu ostean ikusi zuen zenbait alor hobetu egin ahal ziren, lehenik eta behin, ulertu zuten armada handiago bat behar zutela, bereziki Mediterraneoan kontrolatu nahi bazuten. Bigarrenik, ulertu zuten armada zuzenduko zuen jeneral ospetsu eta garrantzitsu bat beharrezkoa zela, ekialdeko eta mendebaldeko jeneral ospetsuei aurre egiteko. Horren adibide, Eszipion *inperator* daukagu, Gerra Punikoen jeneral erromatar ospetsuena izan zena.

Oso denbora gutxian ia Mediterraneo osoa kontrolatzen zuten erromatarrek eta II.mendearen hasieran jada lurralde inperio bat sortu zuten, mendebaldeko indartsuena izango zena eta baita iraunkorra ere. Mediterraneoan ez bezala, ekialdeko konkista egitea, batez ere Mazedonia eta Seleuzidaren kasuan, perfidiaren argudioak ez zuten balio.

- **Hirugarren Guerra Punikoa (K.a.148-146):** Erromak irabazi zuen gerra hau; Kartago hiria suntsitu eta biztanle asko hil zituen, eta bizirik geratu ziren 50.000 kartagotarrak esklabo bihurtu zituen. Gerraren ondorioz, Kartagorenak izandako lurralde guztiak Erromako probintzia bat izatera pasatu ziren.

Errepublikara garaian esaten zen Alejandrok idatzi batzuk utzi zituela eta etorkizuneko kanpaina batzuk deskribatzen zituela (mendebaldeko lurrak).

Konkisten areagotzea

K.a 201-30ra. (II: kanpainan, kartagoko kontrako gerratik egiptoko konkistararte)

Inperioaren territorialaren sorrerarekin, arazo edo kezka berriak sortuko dira mendebaldeko indarra eta inperioaren iraunkortasuna, hain zuzen ere. Honekin, lur berriak lotzeko izaera berria sortu beharko dute. Honekin batera, identitatearen arazoa sortzen da. Identitate amankomuna behar da, leialtasuna behar dutelako, integrazio prozesuak martxan jarri behar dira bestela matxinadak egongo direlako. Integrazio hori identitate berri bat sortzen ematen da. Hasieran, identitatea amankomun hori kulturala da, armadaren presentziarekin integrazio prozesuak jartzen direlarik. Ekialdean, batez ere, *koine* grekeraz komunitatea dena, nabarmentzen da. Errromatar eta Greziarren arteko komunitate amankomuna dagoela justifikatzen dute, Inperioari identitate berria emateko asmoz.



II. mendearan amaieran, Errromatar inperioaren espantsioa Errepublikan.

- ❖ Inperio territorialaren sorrera
- ❖ Mendebaldeko indartsuena eta iraunkorra

- ❖ Mendebaldeko konkistari ekin zion

Inperialismo erasokorra: K.a 148-133

- Greziako konkista: K.a 147-146
- III. Gerrate punikoa (K.a 150-146)

Mendebaldean:

- Penintsula Iberiarreko gerrak (K.a 155-133). hauek oso luzeak dira.

K.a 200-148: inperialismo defentsiboa

Mazedoniako gerra

- Filipo V: Cynosvcephalos: Azken bataila K.a 197
- Perseo: K.a 171-168: Pidna

Seleuzodatarren kontrako gerra:

- Magnesia: K.a 191-188: Magnesia

Kartagotarren gerren kronologia parekoa izan zen, beraz, hori konkistatzean ekialdea konkistatzeko hasiera eman zen. Mendebaldean: Luzeagoak, gerrilletan borrokatzen zuten eta herriz herri konkistatzen zuten. I. mendebaldean, Hispania konkistatua zegoela.

GERRA EZ HAIN HANDIAK, ERROMAKO GERRA ZIBILA EMATEN ZEN BITARTEAN LORTUTAKO KONKISTAK.

Politika inperialista: K.a 133-30

- Iugurtaren kontrako gerra, Numidian: 113-105
- Asia txikiko pirateria (102-96)
- Mitridatesen kontrako guda k.a 88-62
- Galietako konkista k.a 59-51
- Egipto: K.a 30

- Garrantzitsuak dira inperialismorako baina kontestu honetan garrantzitsuena ez da hau, erromatarren arteko guda zibilak baizik.

Inperialismoa

Erromatarrek zergatik egin zituzten konkista guztiak? Gaur egun horri inperialismoa deitzen diogu, baina erromatarrek inoiz ez zuten horrelako hitzik erabili, beraienez aurrera eramandako gerra guztiak justuak izan zirelako: edo defentsiboak edo besteek beraiek eskainitako laguntasuna ukatu izanaren ondorio. Edozelan ere, inperialismoa, erromatarrekin lotuta dago eta *imperium* latindar hitzetik dator, bestalde, esan dezakegu menperatutako lurretan kontrol zuzena eta unibertsala izatean datzala. Atenasek edo greziarrek izandako inperioari berriz hegemonia esaten zaio, menperatutako lurak ez zituztelako zuzenean kontrolatzen. Garai horretan erromatarrentzat ezezaguna bazen ere, Ekialdeko Txinako Han inperioarekin parekatu daiteke Erromako inperioa (Txinako inperioa ere momentu horretan sortuko da)⁷.

Inperialismoa dagoela onartuz gero, zer motatako inperialismoa egon zen?

Hemen bi korrante daude:

- **Defentsiboa**: Erromaren inperialismo defentsiboa izan zen, erasopean zeudelako beti erromatarrek eta beraien burua defendatzeko gauzatu zutelako. Korreonte hau iturri erromatarrekin bat dator (Badian).
- **Erasokorra** (WW. Harris: *Guerra e imperialismo en la RÈpublica Romana*): Harrisek teoria berri bat sortu zuen 50eko hamarkadan, aldarrikatuz Erromak gerra egiten zuela aristokrazia lehiakorra zuelako. Hau da, aristokraziak boterea lortzeko diru asko eta ospea behar zituen eta horiek gerraren bidez lortzen ziren. Erroman ospetsuenak jeneralak ziren eta, beraz, aristokraziak gerra behar zuen bere burua ezagutarazteko indartzeko; gainera, hauteskundeak garestiak ziren eta finantzatzeko dirua beharrezkoa zen (kargu publikoek ez zeukaten soldatarik eta aurkeztea garestia zen). Beraz, bigarren korrante honen arabera gerra erromatarra ofentsiboa zen.

⁷ K.a. 206 - k.o. 220.

- Gruenek Harris eta Badianen iritziak matizaten zituen, esanez gerrak ofentsibo defentsiboak izan zirela.
- Ecksteinek (denak dira maisu eta ikasle: Harris Badianen ikasle izan zen, Gruene Harrisen ikasle eta Eckstein Gruenen ikasle) beste ikuspegi bat aldarrikatu du: erromatarrek inperioa lortu zuten, Mediterraneo osoan eurak izan zirelako hori lortzeko gaitasun adina izan zuten bakarrak. Gauza da erromatarrek ez zirela erasokorrek ziren bakarrak edo konkistak gauzatzen zituzten bakarrak, baizik eta gainerako herri guztiak jarduera berdinetan aritzen ziren, baina beraiek izan ziren bakarrak hori amaieraraino gauzatu ahal izan zutenak (teoria honi *empire by invitation*). Hau da erromatarren jarrera ez zuten beraiek produzitu, baizik eta testuinguruaren ondorioa izan zen.

GAUR EGUNGO TEORIAK. IMPERIALISMOA

- Metrozentrikoa: zabalkuntza prozesua aztertuko da zentrotik, Erromako ezaugarri politiko, sozial eta ekonomikoei lehentasuna ematen. Konkistatutako herriak ez dira kontuan hartzen analisi mota honetan.
- Sistematikoa: Hemen konkistatzailea eta konkistatua batera aztertzen dira, beraien arteko interkomunikazioa eta eragina ikusten. Bere oinarri nagusia botere eta sekuritatean datza. Inperioa sortzen da, botere desberdinen lehiatik, sistema beti desorekatua dagoelako.
- Periferikoa edo exzentrikoa: Hau da, inperioa sortzen da, periferian dauden kolaboratzaileak eskatzen dutelako indartsuenaren interbentzioa, hau da, “empere by invention”. Modan dagoen teoria hau da, baina besteak ere existitzen dira.
Erromak gai direlako ez da inperioa sortzen bestek eskaintzen diotelako erromari laguntza inperioa sortzeko.

Inperialismoaren tresnak:

Gerra / armada ezinbesteko tresnak dira inperialismoa gauzatzeko. Gerrarekin armada lotuta → puntu hau Zesarren testuarekin lotu.

❖ “*Bellum iustum*” (Gerra zuzena): Erromatarrek egiten dituzten guda guztiak ideologikoki onartuak daude eta beti izan behar dira defentsiboak eta ez erasokorrak. Jainkoen onartasuna = Jupiterren onarpena. Erromako jainko nagusia delako. Oinarri ideologikoa bere burua defendatzeko eta Jupiterren babesa dutelako. Irain bat jaso dutelako egiten dute gerra eta hori existitzen ez bada probokatzen dute. Lurralde baten konkista erabakitzean, egiten duten lehen gauza *amicitia* eskeintzea izango da konkistatu beharreko eremuari, eta eskatzen diete lurraldeko biztanleei izatea: *soci* eta *amici*. Honen barruan eskaera batzuk daude eta honekin babesa eskeintzen dute. Erromatarren laguna izatea abantailak dituelako. Normalean, laguntzen dute eskaintza:

1) enbajadoreak bidaltzen

2) oso urruti badago edo ez badaude, legioak lurraldearen ingurura bidali haien indarra erakusteko. Erromatarren baliabide guztiak zeintzuk diren erakusten dute. Horrela eskeintzen diete: laguntasuna / *amicitia*.

Akordioarik ez dagoenean *deditio* agertzen da, leialtasunezko errendizioa. Beraz, orain erakutsi behar duzuna leialtasuna da. Berritri erromatarren laguna izateko. Kasurik egiten ez baduzu, arazoak izango dituzu. Errenditu direnez, ez dute eskubiderik matxinatzeko ezta kexatzeko ezta ezer eskatzeko ere.

1. *D.hutsa*: Herrian sartzen dira eta hura guztiz suntsitzne dute, eta gainera errendizioa exijitzen dute
2. *D.in fidem*: hori egiten zuten erromatarrek ikusten zutenean erraz lortuko zutela garaipena eta aurkakoez bazekitenean erromatarrek sartuz gero herria guztiz suntsituko zutela, hori bai, lehendik erromatarrek haien indar militarra erakusten zuten. Honen bidez, herria lurrak eta bertako biztanleak fidagarritasunez eskaintzen dira suntsituak izan ez daitezten. Horrela, seguruenik emaitza berdina izango zen (gehienek esklabo moduak amaitzen zuten) gutxienez herria eta bizitza batzuk salbatzea lortzen zuten.
3. *D.voluntario*: errenditzen zirenean, erromatarrek euren indar militarra erakusteko beharrik izan gabe.

Hala ere *deditio* guztien emaitza berdintsua zen.

Cortesiako beste akordio bat dago, *Evocatio* izeneko. Gerra zuzena hasi baino lehen hiriko jainkoei gonbidatzen zaie lurraldea utzi eta Erromara joatearekin. Hori onartzen badute ez dago gerrarik. Ez badute onartzen, Jupiterren kontrako irain moduan hartzen da eta horrela guda justifikatzen da, lehen azaldu dugunez Jupiter kapitolinoak inperialismoaren berme guztiak onartu eta babesten ditu.

Inperialismoa: Erreparasorako eskema

Jupiter = gerra dira inperialismoaren ezaugarriak edo tresnak baina ez dute azaltzen hori legitimazio modu ezberdinetan agertzen da.

Defentsiboa

- + Mehatsuari aurre egiten
- + Babespena eskeintzen dute (barestutako lurraldetan gelditu)
- + LEGITIMAZIOA kanpoan dago

Erasokorra

- + Erromaren interesa (magistratuek zituzten interesak)
 - + Borroka politikoa = sistema politikoak behartzen du etengabeko gerrara. Erroman daudenak politikan aritzeko bi gauza behar: ospea eta (bakarrik lortzen da militarki) dirua (aberatsak). Bata beste bultzatzen du. Dirua konkisten bidez lortzen dute gatibuak saltzen eta zakuraketak eginez. Armada eta general artean banatzen da: zati bat senaturako, beste bat armadarako eta azken zatia generalentzat. Diru gehiago ateratzeko gerretan setioetan, denbora luzez leku batean egoten direlako eta horregatik dituzte aukerak pixkana gatibuak egin, merkataritza egiteko eta gerraren inguruko ekintza guztiak bultzatzeko.
 - + Numantiako setioa, adb. 10 urte.
- + LEGITIMAZIOA barruan dago

TESTUA

ZEIN DA ZESAR?

Militar eta politikoa da eta deskribatzen duena Galietako ihesa. Noiz kontatzen du? Galietako gerra (develo galico) berak idatzitako txosten militarren bilduma, guda geroago egiten du bere irudia goraiatzeko eta bere ospea behar duelako botere politikoaren gatazkan nagusitzeko asmoz. Errepublikan zer gertatzen da? Ponpeio / Zesar. K.a I mendean gaude eta sistema tentsionatzen hasi da magistratuen artean bi general nagusitzen da; Ponpeio (Iruña) eta Zesar (Galietako guda eta Aquitaniako konkista “oso espazio berezia bere lege eta sistema politiko berezia). Ponpeio konkistatzaile handiena (famatuena eta ospe handiena) Galietako konkista baino lehen, Hispanian Ekialdean eta piraten kontra guztia irabazi duelako. Zesarri falta zaio OSPEA eta DIRUA. Beraz, harrapatu behar du Ponpeioren posizioa eta horretarako guda bultzatu behar du = Galietako guda.

58-52: Alexiako batailarekin bukatzen da Frantsesen lehen askatasun galtzea.

!Komentarioan legitimazioa bilatu/arrazoia!

DEDITIO: Errendizioa. Ematen diren baldintzak erromarekiko harremanak adierazteko. Kontuan izanik zesarren beharrak, devitio-nes eskuratzen eman zituen. Negozioaketa guxti egiten zituen errendizioak lortuz. Erromatarren nagusitasuna erakusten dute indar militarra.

Zesar, BG 1.27.1-3

“Helveziarrek, gabezaia larrienak bultzatuta, mezulariak bidali zituzten Zesarrengana errendizioaz hitz egiteko. Hauek, Zesar bidean topatu eta oinetara erorita malkotan arren bakea eskatzen hasi zitzaiozkionean eta, Zesarrek, agindatutako lekuan bere etorrera itxaroteko agindu, obeditu egin zioten. Zesarrek, hará iritsi ondoren, bahituak, armak eta haiengana ihes egindako esklaboak eskatu zizkien. Agindutakoak prestatu eta bere bitartean gau iluna egon zelarik, Verbigenus deritzan auzoko 6000 gizon inguru, armak entregatu ondoren, bai erahilak izan zitezkeelako beldurrik izututa, bai salbamenaren itxaropenak bultzatuta, hainbeste gatiburen artean beren ihesaldia ezkutatua edo gutxienez atzemangabea gera zitekeela pentsatuz, gaua hasi berrian Helveziarren kanpamendurik irten eta Rhin ibairantz, Germaniarren lurraldera zuzendu ziren.”

Galieta guda, Galieta deskribapen batekin hasten da (galieta zatiak). Liburuaren lehen zatian Zesarren, Elvetiarren kontrako guda (Rodano, Suizaren inguruan). Galieta konkistan Hego-Ekialdetik hasi eta mapari buelta ematen dio. Beraz, Elvetiarren kontrako guda hasiera dira eta honen azkeneko partean hasten dira.

TESTUA:

Testuingurua: Gerraren hasieran, 3 urtez iraun zuen, K.a 56-55. urtean kokatzen gara (Galieta guda 58-52. urteetan ematen da). Testuak errendizioa deskribatzen du, deditio.

Testuaren azterketa:

1. Helvetiarren egoera
2. *Deditio*-aren eszena
3. *Deditio*-aren ondorioa

Esanahi orokorra: Zesarren nagusitasuna eta ahulezia Velveziarrena. Helvetiarren ahulezia (edo bere barbarotasuna) Erromako kategoria literarioa da. Erroma eta Zesarrez gain, Helvetiarren datuak edo deskripzioa egiten du. Zesarren hitzetan barbaroak direla esaten du baina inopia hitz erabiliz gerrarengatik hondasunik gabe gelditu dira eta ekonomikoki agortu dituzte, beraz, dirurik gabe daudelako errendizioa eskatzera.

Deditioaren baldintzak; bahituak, armak eta ihes egindako esklabuak eskatu zituen. Haien artean, Erromar armadetako desertoreak, auxiliarrak direnak.

Errenditzeko pausuak:

1. Lehenengo, mezulariak bidali.
2. Bigarrenik, errenditzen ari direnaren itxura, *ars*, bakea eskatzen dute, negarrez eta belauniko (errendizioaren antzerkia egin behar dute mezulariak).
3. Zesarren baldintzak obeditu: bahituak, armak eta ihes egindako esklabuak.
 - a. Bahituak eskatzean matxinadak sahiestu eta lehialtasuna eskatzen dute. Ez direnez fiatzen bahituak eskatzen dituzte.
 - b. Armak: des-armatzen dituzte borroka gehiago egiteko.
 - c. Iheslari guztiak bueltatzea eskatu = traidoreak zigortzeko.

4. Helvetiarren portaera azaldu. Deditio bukatua ihes egiten dute, barbaroak direlako eta koldarrak (Zesarrek esana). Barbaroak direnez, *perfidia*-dunak dira, ez daukate lehialtasunik. Praktikotasunean, ez dute Helveziar guztiek ihes egiten baizik eta 6000 gizon. Germaniarantz joaten dira, haien aliatuak direla ulertu daiteke, suposatzen da gerrarekin jarraitzeko. Hori zesarri bere kanpainarekin jarraitzeko aitzakia ematen dio. Normalean, deditio-a pasatu ondoren ezin da gerrarik egin (eta zesarrek diru eta ospe gehiago behar dute).

4. ERREPUBLIKAREN KRISIALDIA (K.A. I. MENDEA)

I: Errepublika garaia, baina guda zibila. Konkista ez da gelditzen baina moteltzen da.

Krisialdiaren pikoak, “crisis” grekeraz eXtasis moduan, ez oso luzea zenean erabiltzen zen terminoa da. Izan ere, krisialdiaren puntuak:

1. krisialdiaren pikoak, Bacchanalia **186**
2. krisialdiaren pikoak, Grakoren erreforma (krisiaren hasiera) **133-123**
3. momentua, Aliatuen gerra **90-88**
4. momentua, Espartako matxinada **73-71**
 - Bide anitz izango dira guztiak militarrek, beraz hemen hasiko da joera bat lider militarra errepublikan boterea eskuratzekoa.

186. urtean, Bacchanalia (Bako, gazteleraz). Urte batzuk lehenago, hegoaldetik hasten ziren sartzen Magna Greziatik Etruria bidez, Helenizazio bidea irekitzen, Puto berriak sartzen joan ziren. Bakoren kultoa, lotua zegoen Greziar antzerkiarekin, garai klasikoan izan zen bidea demokrazia eta berdintasunaren ideia zabaltzeko. (Garai helenistikoan ezberdina izan zen). Antzerkiarekin lotuta ere, ardoaren jainkoa zen.

Erritual bereziak zituen, inimizazioak ziren ardoa edanda, ardoa edan eta gero mendietatik ibiltzen ziren kortejo batekin (emakumez inguraturatik) horiek edanda eromenez edo zentzugabeko portatzen ziren, hauek, bakante izena jasotzen zuten. Kulto hauek sartzen dira erroman, Aventinotik, plebea bizitzen zen tokitik hain zuzen ere. Kulto hauek gauz egiten ziren, ez dago argirik eta magistratuak ez zeuden kalean (askatasun momentua zen). Ardoa⁸ errepublikaren garaian debekatuta dago emakumentzat. Lehen erromako fidelak, Bakoren kultua jarraitzen emakumeak eta esklabuak izaten dira.

Hauek kultoa egiteko, gauz ardoa edatera biltzen ziren Aventino inguruan dauden mendietan. Magistratuek, zerbait prestatzen ari direla pentsatzen dute. Alde batetik,

⁸ Plebea, gaua eta ardoa 3 elementu arriskutsu dira

emakumeak kontrolik gabe daudelako, harreman sexualak izan ditzazkete (mozkor) esklabuekin elkartzean (desoreka soziala) umeak atera daitezkeelako. Gainera, Bakoren kultoa, erlijioarekin berdintasunaren ideia zabaltzen zen.

186. urtean, eztanda egiten du denuntzia bat dagoelako, leporatzen zaie Bako kultoaren jarraitzaileei, Erromatar herritarrak usteldu nahi dituztela. Hori gertatzean, Bakoren kultoan sartu den Erromatar bat (honek eginda) behartuz, Bakoren kultoan harreman sexual askeak izatea eta umeak sakrifikatzen dituztela diote ardoa neurrigabe edaten duten bitartean. Bi krimen inbolukraturik zeuden, adulterioa (emakumentzako zigorra soilik) eta erahilketa.

Redada egiten dira Erroma eta torturen bidez aitormen ezberdinak jasotzen dituzte, guztia onartuz. Senaduak, dekretua Bacchanalesen kontra “*Senatus consultum de Bacchanalibus*” honetan Bakoren gurtza debekatzen dute. Baina batez ere, elkartzeko askatasuna debekatzen du, hau mugatuz. Araututa ez dauden asanbladetatik kanpo (popularrak eta politikoak) debekatua dago, 4 pertsona baino gehiago elkartzea. Uste dute, Helenizazioaren bidez ideia politiko berriak sartzen direla eta asanbladetatik kanpo zabaltzen direla. Asanblada politikoetan magistratuek (boteredunak) hitz egiteko baimena zeukaten eta pertsona arruntek, berriz, ez dute aukerarik. Bakoren asanblada erlijiosoetan ideiak edonor zabaltzen zituzten, gurtzaren ideiak baziren ere, berdintasunaren ideia⁹ zabaltzen zuten. Greziar eraginez, Helenizazioaren, etorritako gurtza berria. Sistemaren kontrako mehatsu ideologiko moduan hartzen du, debekuak ezarriz.

Idea berriak sartuko dira Erroman inperialismoaren eraginez, “Auquitas” hitza ez da berdintasuna, ez da existitzen. Beti oso hierarkizatua egongo delako gizartea. Auquitas, zehazki, ez du berdintasuna, zuzentasunez jokatu behar dutenaren esanahia dauka, guztiak onak direlako.

⁹ Askatasunez elkartzea hiriko asanblada arautuetatik kanpo

2. Grakoren anaien erreformak.

Tiberio eta Caio anaiak dira. Aristokrazia inperialismoaren etekina dela eta, bi aldetan banatuak zeuden. Batzuk; *optimates* eta besteak; *populares*. Aristokrazia bitan banatua, *optimates*, betiko aristokraziaren pribilegioak mantendu nahi zituen eta besteak *populares* inperialismoaren etekina gehiagoren artean banatu nahi dituzte (ez guztientzat). Ez dute herriari zabaltzen uzten eta beti karguak aristokratak biltzen dituzte. Guztiak *nobiles* dira, aristokratak. Plebea erabilia izango da borroka politikoa edo interesen alde, haien helburua boterea delako. Horretarako plebea eta indar militarren laguntza behar dute. Beraz, boterea lortzeko borroka egongo da.

Grako anaiak *populares*-ekin lerrokatu ziren, Escipioiak familiarekin konektatzen ziren eta hauek *optimates*-ekin kokatu ziren. Haien artean boterea eskuratzeko borroka edo lehia zegoelako, haien artean zeinek botere gehiago lortzen zuen edo hobeto. Plebearen laguntza behar zuten, asanbladan bozketa egitean, magistraturak batekoak edo bestekoak sortzeko beharrezkoak zirelako.

Ekonomian, arazoak zueden latifundioak sortu zirelako eta ez zegoelako lurrik jende arruntentzako. Grako anaiak, plebearen oniritzia bereganatzeko hau egin zuten: Latifundioak mugatzea, kopurua eta zabalera mugatzea eta jendeari lurrak banatzea.

Optimates-en oposaketa izan zuten, Tiberio Grakok proposatzen duen lehen legearen ondorioak, atzera bota zuten legea (gauza berria delako) eta Tiberio hil egiten dute. Beste arazoa, militar gehiago behar ditu, Erromatar armadak, soldadu berriak erreklutatu behar ditu eta horretarako, auxiliar asko hartzen ditu (edozein motatako soldaduak dira), Erromatar hiritartasunarekin saritzen dituelarik. Beraz, lurra behar duzu hiritartasuna aitortzeko.

❖ Beraz , arazoa: latifundioa eta lur falta eta hiritar gehiagoren beharra.

Kaio atera senatari edo magistratu moduan eta bere anaiaren proposamena berhartzen du, latifundioen lurrak banatu baina ez bakarrik, konkistatutako lurra hiritarren/beteranoen artean banatzeko proposamena batzen du eta horrela arazoa mugatzeko edo gutxitzeko Erromatik kanpo hiritarrak bildatzeko aukera da ere.

Kartagoko lurraldea beteranoen artean banatzea proposatzen zuen lehena da, Erromatar hiritarrak Erromatik kanpo bidaltzen dituen lehena delako. (Gauza berria). Arazo berriak sortuko dira, leialtasuna armadaren alde egongo da eta ez senatuaren alde, armada (general desberdinekiko) ondoan zeukatelako eta senatua oso urrun. Senatua legearen aurrean oposatu baina legea aurrera joango da. Kaiorekin ere, hilko dute.

Benetan ez zen inplementatu, biak hilda zeudelako, indarrak abian jartzea ez zutelako uzten. Horregatik aregoatu zen arazoa; hiritarrak edo hiritar berriek lurak eskuratzean hiritartzea lortzeko. Soldaduak hartzen zituzten baina ez hiritarra egiten, beraz, jende haserretua zegoen baina hiritar maxifikazio handia eteten zuten. Erromatarrek aliatu horiek Italian erreklutatzen zituzten, badaukate soldadu pila eskatzen dutenak hiritartasuna Erromak ematen ez diena. Zergatik? Italiako lurak konkistatua (*deditio*) eta senatuak dena kontrolatzen duela kontuan hartuta, lurak ez daudelako eta hiritartasuna ematean lurra eman behar zaizkielako. Beraz, errendizioaren ostean lurak lehen eskuetara itzultzen zen jabegoa. Beraz, lurraren jabegoarekin aldaketa sozialak daude.

3. Aliatuen gerra. 90-88.

Penintsulako hiriak matxinatzen dira, lurra berriz izateko eskubidea dutela esaten dutelako. Generalaren laguntzarekin, Sila, *Optimates*-en alde dagoena. Sila suntsitzen ditu, guda irabaziz. Modu berezian irabazi zuen, berriro eraldatu zutelako sistema politikoa. Guda luzatu zen, urte batean ez zen izan, beraz, ez-ohiko magistratura eskatu zuen. Ez zuen pro-kontsul izatea eskatu, *diktator* izatea eskatu zuen, politika sunpentsoan geratzen zen botere bakarra bera izanez. Honekin, saiakera arriskutsua ikusi zuten politikan. Silak boterea itzuli eta diktatura bertan behera gelditu zen. (Silaren diktatura onartu zuten eta bazekiten posibilitate hori zegoela). Honek, denuntziaren sistema jarri zuen (jendearen denuntziak eginez *populares*-eko taldekoak baziren hondasunik gabe gelditzen ziren). Honela, Silak senatua garbitu zuen. Frogak ez ziren behar, denuntziarekin nahikoa zen.

4. Espatakoren matxinada 73-71

Hegoaldeko latifundioekin erlazionatzen da. Bacchanialako errepresioa ere bertan izan zen, beraz, lurralde honek erromatar inperialismoarekin asko sufritu zuen. Lan egiteko populazio gehiena soldadu erreklutatu zituztenez, esklabu asko ekarri ziztuzten denbora gutxian, 40 bat urtetan. Honek Desoreka soziala eraginez.

Testu inguru honetan, *gladiator* izateko soldadu bat erreklutatu zutenean, “Espartaco” Trazia aristokraziaren partaide izan zena, Greziara gatibu moduan ekarri zuten eta eskolan matxinatzen da beste kide batzuekin. Tokiko guarnizio erromatar txikien kontra matxinatzen dira, bataila txikiak irabazten eta esklabu pilo bat batzen. Azkenena, 40.000 esklabu biltzea lortu zuen (liburuen arabera aldatzen bada datua). Hiru urtez bilaketak egiten egon ziren, hegoaldean, zortea izan zuten erromatarrak irabazteko, arriskutsuak bihurtu ziren eta senatuak beldurra zien, armada handia bildu zuen Ponpeioren lidergopean. Sizilian beste bi matxinada egon ziren, garaituak izan zirenak.

Espartako Traziara (Bulgaria) bueltatu nahi zen, eta beste batzuk Galiara (Alpeak zeharkatu) esklabuen armada banatuz eta ahulduz. Mitologia historiko asko sortu ziren, bestea benetan gertatu zela agertzen da. Espartakoren porrota interes ezberdinengatik armadaren banaketa arrazoia izan zela bai aipatzen da iturrietan. Erreforzatua atera zen lider militarra Ponpeio izan zen, modako generala *Optimates*-ekin lerrokatu zen. Esklabuak garaitu zituenez, Erromako salbatzaile moduan agertu zen, arrisku bat zirelako *res publica*-rentzat. *Populareseko* lerroetatik aterata, Zesar atera zen. Bi gauza falta zitzaion honi Ponpeio moduan izateko; dirua eta ospea (ospe militarra), honek Galietako gudarekin lortu zuena. Galietako guda bukatua zegoenean eta Zesarrek ospe militarra lortu zuenez (K.a 51 bukatu zena) *Populares*-ek lider militarra ere zeukaten. Hurrengo urteetan haien arteko borroka ezin zen ekidin, baina ez lehengo borroka politikoa baizik eta militarra biak jeneralak direnez, guda zibila. Honek bai sistema desegingo duela.

Laburpena

- SENATUA

- *Optimates*

- Populares
- Asanblea
 - Optimates
 - Populares
- Magistratual
 - lidergo militarra. Triunbiratoa

Sistema eta egoera orekatzeko **Triunbiratoa** eraiki zen.

1. Ponpeio (Optimates, familia aberatsa, general nagusiena)
2. Zesar (Populares, familia humilla, Galietako gudan)
3. Kraso (Optimates partaidea, Ponpeiorekin printzipioz)

Egoera oso desengokorra bilatu zen, asanblada erabili zuten (herritarrak eta soldaduak) lider bakoitzak bere interesaren alde. Zesar proiektuak plebearen alde egiten zituen eta Ponpeiok hori oztopatzen zuen Krasorekin batera. Zesarrek armadarekin gerra zibila zabaldu zuen. Lehen erahilia ekialdean, Kraso izan zen. Kanpaina militar asko. Ponpeiok galdu eta Egiptora joan, faraoiak hil zuen eta horrela Zesarren “miresmena” edo “eskerrak” lortuko zituela. Hori ez zen horrela izan ez zuelako berak erahil.

Bakarrik Zesar gelditu zen. Sistema momentu honetan, Zesarrek ez du nahi boterea partekatu eta sistema mantendu, formula bat: boterea mantendu eta *res publica* mantentzeko, berritasuna planteatzen du sistemaren barruan, ez sistemaren kontra, sistema desagertuko zelako. (Akabatuta zegoela bazekiten baina itxura mantendu). Magistratura bakarra egongo da, botere banaketaren eraginez, definizioa → botere pertsona baten esku, monarkia izango dena.

Ez zegoen monarkia onartua (erregeak erromatik bota). *Rex* izendatzeko erregea erabiltzen zen baina hau deusestatu zenez, izen berria bilatu behar zuen. Izena eman behar zion, ez zen kontsul (bi zirelako) ez magistratu ohikoa, bilatu behar zuen sisteman urte bat baino gehiago irauteko nahi zituen erreforma guztiak egiteko.

Rex ezinezkoa zen, beraz, Silak erabili zuen bat erabiliko dira: **diktator**. Ez-ohiko magistratura Erroma arriskuan zegoenean baina 6 hilabetez, berritu zitezkeen arren. Berritzeko automatikoki adjetibo bat sortuzuen *dictator perpetus*. Betikaro geratuko dira. Bere kontra zeuden indar guztiak batu ziren hari botererik ateratzeko. Konspirazioa eratu K.a 44. ean senatari talde batek erahiltzen dute, tiraniaren akusaziopean (boteretik kentzeko formula erahiltzea delako).

Hiltzaileak salbatzaileak direla esaten dute, salbatzailea hil bazuten ere. Beren leloa: *res publica* errestauratuko dutela. Haien kontra daudenak, estatu krimena leporatzen zitzairen, Zesarren kargua asablada batean eskeini zitzaiolako. Beraz, erroma bitan banatzen da.

- 1.) estatu krimena: Zesarren oinordeak: Oktabiano eta Marko Antonio
- 2.) Zesarren tiranotza pentsatzen zutenak, Lepido hauen ikurra

Beste triunbiratoa antolatzen da:

1. Oktabiano
 - a. Aldarrikatu estatu krimena. Eskubide osoa daukala triunbiratoak zesarren erahiltzaileen kontra, armadaren bitartez ez partikularki. Garbiketa bat egiten hasi ziren, populares-en ideiak inposatuz indarraren bitartez. (Bruto eta Kasio)
2. Marko Antonio
 - Biak suposatzen da populares direla (zesarren adekoak), zesar hil eta gero populares hauek berreskuratu boterea (lehen errepublikan soilik *optimates*)
3. Ezezeguna: Lepido (ez molestazeko, gizon garrantzaatsiak besteak)

Bi zatitan banatu ziren triunbiratoa eta Erroma.

- ❖ Marko Antonio (Ekialdean: Grezia, Mazedonia, Asia Txikia (Turkia) eta Egipto. Legio eskasak baina aberatsenak ziren, diru asko eta babes gutxi zituztenak.
- ❖ Oktibiano mendebaldearekin; Hispania, Italiako eremuak hartzen ditu. Hauek diru gutxi baino soldadu asko. Grezian, zesarren kontrako etsaiak hil.

- ❖ Lepidoren ordeaz, Kleopatra sartu zen ekuazioan. Kargu erlijiosoa eskeini zioten eta horrela ekuaziotik joan zen.

Berez, posible zen bien artean boterea kudeatzea, antzinateko errepublikaren moduan kontsul moduan. Ez zen berdina eta boterea pertsona bakar baten eskuetan izan nahi zuten Zesarren legatua bermatzeko. Zesarren hiltzaileak akabatu eta gero, Marko Antonio eta Oktabiano bata besteari kontra joan ziren. Biek aldarrikatzen zuten zesarren oinordetzako senideak zirela, zesarrek egindakoa errepublikarako batean. Pertsona bakarraren ideia modu ezberdinetan planteatzen zena:

- ❖ Oktabiano: errepublika apurto gabe gizon bakarreko boterea. *Res publica* moldatu nahi du. Gauzak egokituta eta hiria egokituta baina jatorrizko ideia mantenduz.
- ❖ Marko Aurelio: sistema monarkikoa ezarri gizon bakarreko boterea (Kleopatra eta ekialdeko monarkien eragina) "*basileus*". Marko Antoniok zesarren bidea jarraitu zuen, Egiptoko faraoia izendatu bere burua, errepublikaren aldaketarekin sistemaren apurketa zekarren.

Bien arteko borrokan, Oktabiano soldadu gehiago zituen eta Marko Antoniok Egiptiar mertzenarioez osatutako taldeak zituen gehien bat. *Actium* bataila famatuan, Oktabianok Marko Antonio garaitu zuen, azken honek Kleopatrarekin batera bere buruaz beste egiten duelako. Oktabiano boterearekin geratu zen, gaztea zen eta urte asko bizi nahi zituen. Zesarren eredia ikusita, apurketa eta erregea izendatzean, hilda bukatuko zuen. Bere bizitzaren kontserbazioan pentsatuz, monarkia (bere burua *diktator* izendatzea ez zen ideia ez zen ona) edo boterea mantendu nahi zuen militarri lortu zuelako. Beraz, formula berria bilatu, K.a 31. urtetik hil arte egin zuena, sistema eraldatu monarkia bat bihurtzen errepublika zaharrean oinarrituz (gure sistema politikoen antzindaria: ez dira aurreko instituzioak apurtzen baizik eta eraldatzen, boterearen trasladazioa egin instituzio berrietara, baiian elkarbiziz). Silaren eredia hartuz molestetzen zutenak zuzenean hiltzen zituen. Senatuak jende gutxiarekin gelditu zenez bere aldekoak sartu zituen, baina partaide kopuru berdina eta zeregin berdina zuten ez zuen antzinako instituzioen aldaketa bideratu edo apurketa.

Oktabianoren alde edo bere partaideak zirenak. Oktabiano desegin ez ditu errepublikaren instituzioak hautsi baizik eta eraldatu bere alde egoteko. Senatuan ez dago arazorik, baina asanbladan (Soldaduak eta hiritarrak) soldaduak gerra zibilean banandu ziren eta konfiantza gabeko soldaduak ez zituenez nahi, saritu behar ditu, lizentziatzen ditu, lurak urruti ematen dizkie (Erbesteratze modu bat) beterano pilo sortzen ditu eta horrela ezin dira armadan egon ezta asanbladan parte hartu oso urruti daudelako eta asanbladako leku hutsak bere aldekoek okupatzen dituzte. Horrela, senatua eta asanblada kontrolatzen ditu. Batean, kendu (hil) eta bestean lizentziatu edo saritu, herbesteratzeko modu bat izanez. Marko Antonio eta Zesarrek erakundeak kendu nahi zituzten printzipioan, Oktabianok bere alde jarri zituen.

Magistraturak arazoa izan zituen, guztiak hemen porrota egin zutelako. Estatua berri eta garbitu ondoren, senatuen artean, gerra irabazteko eman dizkidazuen botere guztiak (politiko eta militarrik) itzultzen dizkizuet, ez ditu nahi, senatuek (bere partaidez beterik daudenean) berak botere guztia gordetzeko esaten diete. Berrito, botereen itzultzea eskatzen du, *Res publica* bakean dagoelako salbatzailerik ez dela behar argudiatuz. Berrito ere, botereekin gelditzeko esan. Hirugarren batean, eskaintza = egin eta hirugarren aldiz = erantzun. Orduan Oktabianok ados esaten du eta nik izango naiz Erroma kudeatzen duena, haiek eskatu diotelako, tirano edo errege bat dela leporatu ezin diotelarik, bere boterea legitimatua dagoelako.

Izena aukeratzeko momentua, izen berria, "*PRINCEPS*" izena, lehenengoa izan zena. Bakarrik zutelako lehenengoa izango naiz baina ez naiz zuen gainean egongo. K.a 27an printzipatua hasten da (Edo goi inperioa) erromaren *res publicaren* gainean *princeps* bat dagoelako. Erromako enperadore guztiak formula berria errepikatzen dute, aldez aurretik senatua bere alde daukatela. Beraz, sistema berria: *Res publica constitutes*. (Guretzako erregetza edo monarkia dira baina haiantzako ez).